

zumaiia

15. zenbakia • 2011ko ekaina

ZU

udalaldizkaria



Zumaiako Udala



Arlo guztietan aurrera,
urratsez urrats

Arloz arlo eta pausoz pauso Zumaiako Udalak ekimen eta proiektu ezberdinen bidez herria hobetzeko neurriak eta konpromisoak hartu ditu.

aurkibidea

2 San Jose egoitza

3 Inkesta

4 Udala zuzenean / Fototeka

5 Denon herri kontuak

6 Motxian

8 Hobekuntzak

12 Alondegia, eraberrituta

13 Hizkuntza eskubideak

14 FLYSCH Trail

15 Frontoia

16 Etxebizitzak

18 Alderdien iritziak

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaia Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Zumaia Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 4.500 ale
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; San Juan egoitza



San Juan Egoitzan 52 egoiliar daude gaur egun, beraz, %100 beteta dago. Bertako kideetatik 38 menpekotasun handikoak dira (%73), 12 menpekoak dira (%23) eta 2 autonomoak (%4).

18 gizonezkoak (%35) eta 34 emakumezkoak (%65). Gizonezkoek, 81 urteko batez besteko adina dute eta emakumezkoak berriz, 84 urtekoa. 28 egoiliar (%34), 85 urtetik gorakoak dira. Eta beraien jaioterriari dagokionez, 9 (%17) zumaiarrak dira, 28 (%54) gipuzkoarrak, 1 bizkaitarra eta beste 14 (%27) espainiarrak.

San Juan Egoitzaren informazio gehiagorako: San Jose kalea, 16
Telefonoa: 943 861273
Posta elektronikoa: egoitza@zumaiakoudala.net

En la residencia San Juan de Zumaia hoy en día viven 52 residentes, y tiene una ocupación del 100%.

Entre los residentes, hay 38 (73%) que tienen una gran dependencia, 12 (23%) son dependientes y 2 (4%) son autónomos.

Para obtener más información llamar al teléfono 943 861273 o escribir al e-mail egoitza@zumaiakoudala.net.



Gustatzen al zaizu nola gelditzen ari den Odieta ingurua?



Josemai Osa

Plaza oraindik ere bukatu gabe dago, baina niri gustatzen zait nola gelditzen ari den. Hala ere, frontoia estali izan balute hobeto izango zen. Horrela hurrekin-eta ibiltzeko estalpe bat izango bailuke herriak.

Aún no están terminadas las obras, pero me gusta como está quedando la plaza. Estaría mejor si hubieran cubierto el frontón, para que los niños tuvieran un lugar donde jugar los días de mal tiempo.



Francisco Urtain

Nik galdera bat dut: inguru horretako obratan hasi zirenean, frontoiaren egitura, luzera, materiala... berdin mantenduko zituztela esan zuten, eta ez da horrela izan. Dena aldatu dute. Ez dute esandakoa bete, eta ez zait gustatzen.

Cuando empezaron las obras dijeron que mantendrían la estructura, la longitud, el material... pero no han hecho lo que dijeron. Han cambiado todo.



Joxe Ametsmendi

Ez zait gustatzen nola gelditzen ari den. Oso gaizki egin dute. Odieta etxeetarako autoentzako eta sarrerarik ez dute egin, eta lehen atzean zen bidea ere itxi edo kendu egin dute. Ez zait batere gustatzen nola gelditzen ari den.

No me gusta nada como está quedando. Además, no hay paso para los coches que quieren acceder a las casas, y han quitado el caminito que pasaba por detrás.



Javier Manteca

Ari dira bukatzen, baina beti izaten da inguruetan-eta hobetzeko zerbait. Hemen ere horrela gertatzen da. Badira, adibidez, 6-8 eskailera berritzeko moduan daudenak bazter batean. Baina polita gelditzen ari da. Odieta emandako berritzea oso ondo gelditu da, pena frontoia ez estaltzea.

Parece que están terminando las obras, y parece que quedará bien. Siempre hay cosas por mejorar, pero en general me gusta como queda.

udala



herritarrek aukeratu dute. Erabaki dute. Ekainean, batzuk beren hautuz utziko dute Udaleko zinegotzi kargua. Beste zenbaiti Espainiako justiziak eragotzi die beren zereginetan jarraitu ahal izatea. Hala ere, Zumaia Udalak bere bidea jarraituko du.

Txoko honetatik, gaurdaino Udalean lanean aritu direnei, eta hemendik aurrera hasiko edo jarraituko dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu hartutako konpromisoagatik. Oztopoak oztopo eta desadostasunak adostasun bihurtzeko, jarrai dezagun Zumaia eraikitzen.

La ciudadanía ya ha elegido. Ya ha decidido. En Junio entrarán nuevos electos, otros dejarán sus cargos por propia voluntad y otros no podrán seguir por la imposición del Tribunal Supremo. Durante los próximos cuatro años el Ayuntamiento de Zumaia seguirá mirando al futuro.

Encontraremos dificultades, claro, pero si tenemos la determinación de transformar nuestros desacuerdos en acuerdos, en Zumaia podemos aspirar a cualquier objetivo que nos propongamos. Desde este rincón queremos agradecer la labor de las personas, tanto concejales y ciudadanos, que durante la pasada legislatura ha trabajado para mejorar Zumaia.

Fototeca



nolakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzten Zumaia argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiairek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa www.euskomedia.org helbidean dago ikusgai.



Kale Nagusiko irudia. Antza denez, argazkia XX. mende hasierakoa da. Kale erdian bi idi-pare azaltzen dira.

Imagen de la calle principal. Parece que la fotografía es de principios del siglo XX. En medio de la calle, un par de bueyes.



Zumaia ikuspegi bat. San Pedro parrokia eta kaia.

Vista de Zumaia. La parroquia San Pedro y el muelle.

Bildu, lehen indarra Zumaiian

6 zinegotzi izango ditu Bildu koalizioak Zumaiako Udalean; EAJ da bigarren indarra 5 zinegotzirekin. PSE-EE eta Aralarrek zinegotzi bana izango dute.



maiatzaren 22an, Udal eta Foru hauteskunde eguna izan zen. Zumaiian, Bildukoa izan zen zerrendarik bozkatuena 2.057 botorekin. Botoen %43,19a jaso zuen EA, Alternatiba eta independentetek osatutako koalizioak. Bigarren bozkatuena EAJ alderdia izan zen 1.480 botorekin. Alderdi horren alde egin zuten boto emaleen %31,07ak. PSE-EE eta Aralar alderdiek, 512 eta 335 boto jaso zituzten hurrenez hurren. H1! eta PPK, aldiz, 155 eta 144 boto lortu zituzten. Abstentzioa % 34,46koa izan zen herrian.

Zinegotzi kopuruari dagokionez, Bilduk izango du Udalean ordezkaririk gehien, 6 zinegotzi izango ditu hain zuzen (7. a, eta, beraz, gehiengo osoa lortzetik 15 bototara gelditu zen). EAJak, 5 izango ditu, eta PSE-EE eta Aralarrek ordezkaririk bana izango dute. H1! eta PPK ordezkaritzarik gabe jarraituko dute.

Datorren legegintzaldiko alkatearen kargu-hartzeko plenoa ekainaren 11n egingo da. Alkatetza lortzeko bozketan gehiengo osoa beharko da. Inork lortzen ez badu, hauteskundeetan boto gehien lortu dituen alderdiko zerrendaburua izendatuko da alkate. Zumaiako kasuan, Bildu izan da bozkatuena, eta Iñaki Agirrezabalaga izendatuko da alkate.

Zinegotziak.

Bildu. 2.057 boto, 6 zinegotzi.

1. Iñaki Agirrezabalaga. 2. Acis Alberdi. 3. Maitane Agirre. 4. Iñaki Ostolaza. 5. Arritokieta Gonzalez. 6. Eneko Agirre.

EAJ. 1.480 boto, 5 zinegotzi.

1. Montse Arana. 2. Miren Eburne Egaña. 3. Juan Carlos Zendoia. 4. Ana Arranz. 5. Isidro Maria Fernandez.

PSE-EE. 512 boto, zinegotzi bat.

1. Emiliano Cabañas.

Aralar. 335 boto, zinegotzi bat.

1. Aitor Leiza.

en las elecciones municipales y forales celebradas el pasado 22 de Mayo la coalición Bildu fue la fuerza más votada con 2.057 votos (43,2%) seguida del PNV con 1480 votos (31,1%) y PSE-EE y Aralar con 512 y 335 votos respectivamente.

El consistorio se conformará con 6 concejales de Bildu, 5 del PNV, 1 del PSE-EE y otro de Aralar. El PP y H1! han quedado fuera del consistorio con 155 y 144 votos respectivamente.

Concejales:

Bildu. 2.057 votos, 6 concejales
EAJ. 1.480 votos, 5 concejales.
PSE-EE. 512 votos, un concejal.
Aralar. 335 votos, un concejal.

Musika taldeentzat txoko berria



Herriko musika taldeentzat Uxategia eraikina eraberrituko du Udalak. Horrela, musika sormenerako espazio egokiak eskaini nahi zaizkie herriko musika taldeei. Eraikinaren egokitzapen lanak ekainean hasiko dira, eta urtea bukatzerako izango dute bertan entseatzeko aukera musika taldeek.

Eraberritzean eraikinaren lehen solairua egokituko da. Bertan, musika taldeentzat 6 lokal prestatuko dira, eta grabazio gune bat ere bai. Hala, taldeek lokalean bertan grabaketak egiteko aukera ere izango dute. Lan horietaz gain, legea betetzeko beharrezkoak diren instalazioak eta egokitzapenak ere egingo dira. Proiektu hori ondoren erabiltzaile izango direnekin adostuta zehaztu da.

El consistorio va a remodelar el edificio Uxategia para acondicionarlo a las necesidades de los grupos musicales locales. El objetivo de esta remodelación es ofrecer a los grupos locales espacios propicios que incentiven la creación musical. Las obras de acondicionamiento comenzarán en Junio y los grupos podrán entrar a partir de Diciembre.

La remodelación incide especialmente en la primera planta del edificio, en la que se prepararán 6 locales de ensayo y un espacio de grabación. Los grupos que ensayen podrán realizar sus propias grabaciones. Este nuevo espacio se ha diseñado respetando las normativas y regulaciones legales.

Udalekuak prest, herriko haur eta gaztetxoentzat



Zumaiko Ludotekak antolatuta, aurtengo uztailean ere udaleku irekiak izango dira Zumaian. Uztailaren 4tik 29ra bitartean bi txanda antolatu dira haurrentzat. Guztira, 362 haurrek eman dute izena; batzuk bi txandetan izango dira, eta beste batzuk txanda batean hartuko dute parte. Lehen txandan 338 haur izango dira, eta bigarrean, berriz, 174.

Sagarbide ikastetxea izango da udalekuetako bilgune nagusia, eta bertan egingo dituzte hainbat jolas eta ekintza. Hamabostean behin, irteera bat ere egingo dute. LH 3-6 bitarteko haurren udalekuetako ekintzetan kirola egiteko aukera izango dute, ekintza asko izango baitira kirol ezberdinetara bideratuta.

En Julio se volverán a abrir los campamentos de verano para los niños y niñas de Zumaia. En total se han inscrito 362 menores, en dos turnos. Algunos de los menores se han inscrito en los dos turnos. En el primero participarán 338 menores y en la segunda 174.

El punto de encuentro será la escuela Sagarbide, desde donde se organizarán las diversas actividades y juegos. Cada quince días saldrán de excursión. Los menores de EP 3-6 también practicarán varios deportes como parte del programa.

San Jose komentua ezagutzeko aukera



Maiatzean eta ekainean San Jose komentua ezagutzera emateko, bisita gidatuak antolatu ditu Zumaia Udalaren Turismo Sailak. Komentua bertatik bertara ezagutu nahi dutenek, ekainean ere bi egunetan izan du aukera: ekainaren 4an eta 25ean. Egun bakoitzean bi bisita gidatu egin dira. Lehenengoa, 17:30ean (gazteleraz) eta, bigarrena, 18:30ean (euskaraz). Bisita horien prezioa 3 eurokoa da, eta izena Turismo Bulegoan eman behar da. Bisita gidatuek plaza mugatuak dituzte; gehienez 15 lagunek hartuko dute parte bisita bakoitzean.

Horretaz gain, iaz egin bezala, aurten ere Done Jakue bidea egiten ari diren erromesentzat prestatuko da San Jose komentuko zati bat.

El Departamento de Turismo ha organizado visitas guiadas para conocer el convento de San José. Quienes quieran conocer de cerca el convento tendrán la oportunidad de hacerlo los días 4 y 25 de Junio. Las visitas de las 17:30 serán en castellano y las de las 18:30 en euskera. Las visitas cuestan 3 euros por persona y hay que reservar plaza en la Oficina de Turismo. El límite son 15 personas por visita. Por otra parte, y como viene siendo habitual, se preparará una parte del convento para acoger a los peregrinos que hacen el camino de Santiago.

Narruondorako pasabidea egiten hasi dira



Narruondoraino egingo den oinezkoentzako pasabidearen eta bidegorriaren lehen faseko lanak ekainaren hasieran hasi dira gauzatzen. Lehen fase horretan, Txikiardiko biribilgurenainoko lanak egingo ditu Zumaia Udalak. Bigarren fasea, Txikiarditik Narruondorainokoa izango da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egiteko konpromisoa hartua du. Obra horiek 2012an hasteko asmoa dago. Lehen faseko obrak Kakueta enpresak egingo ditu, eta guztira 572.000 euroko inbertsioa izango da Zumaia Udalarentzat. Hasita diren obra horien bidez, oinezkoen pasabidea eta bidegorria egiteaz gain, auzo horretarako ur hornidura hobetuko da. Eta orain artean iristen ez ziren gas eta zuntz optikoaren hornidura ezarriko da. Horrela, auzo horrek urte askoan pairatu dituen gabeziak batzuk bideratuko ditu Zumaia Udalak.

En Junio comenzarán las obras de la primera fase del paso peatonal y el bidegorri que llegarán hasta Narruondo. En esta fase, el Ayuntamiento realizará las obras hasta la rotonda de Txikiardi. A partir de ahí comienza la segunda fase, desde la rotonda de Txikiardi hasta Narruondo, que corresponde ejecutar a la Diputación Foral, a partir del 2012 como ya se ha comprometido. La empresa Kakueta se encargará de la primera fase, cuya inversión se calcula en 572.000 euros. Se aprovechará la ejecución de estas obras para optimizar la provisión de agua, e integrar al barrio en la red de gas natural y fibra óptica, terminando así con algunas de las carencias.

Aurrerapausoak emanenez

Arloz arlo, herritarren beharren eta eskaeren arabera herria pixkanaka-pixkanaka hobetzen doa.

Zumaia avanza, paso a paso, respondiendo a las peticiones y necesidades de la ciudadanía.



azken urteotan, aldaketa eta berrikuntza ugari izan dira Zumaiaiko Udalean. Udalaren eguneroko funtzionamendutik bertatik hasi, eta herriko txoko guztietara eta herritar guztiengana iristen saiatu da azken urteotan Udala.

Udal partehartzailea, garden eta praktikoa eratzeko ahaleginak egin dira. Herritik bertatik, herritarrek eta herriarrentzat eraiki behar baita Zumaia. Bide horretan, prozesu parte hartzaile ezberdinez bidez, herritarren iradokizun eta kexak entzun dira azken urteotan. Eta, nola ez, ahal izan den neurrian herritarren esanari erantzuna ematen saiatu da Udala.

Prozesu parte hartzaileak gai edo arlo ezberdinei lotuta egin dira.

Hala, hiru urtez jarraian parte hartzean oinarritutako aurrekontu partehartzaileak eman dira aurrera. Prozesu horren bidez, herritarrek erabaki dituzte herriko zein proiektuk duten lehentasuna, eta zein arazo konpondu edo hobetu behar duen Udalak. Udalak, berriz, urtez urte ahal izan duen neurrian erantzuna eman die eskaera edo kexa horiei guztiei.

Baina aurrekontuetaz gain, beste prozesu parte hartzaile batzuk ere jarri dira abian. Hala nola, ireki berria den Alondegiaren erabilera kultur eragile ezberdinen artean osatutako Kultura foroak aurrera eramandako prozesu parte hartzaile baten bidez zehaztu zen. Kulturaren eta kultur azpiegituren inguruan beste parte hartzeko prozesu batzuk ere izan dira abian. 2010ean,

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeatuz programaren baitan, 'Kultura Zumaian 2020' ekimena eman zen aurrera. Ekimen horren bidez, herriko kultur eragile ezberdinek herriko kultura aztertu, hausnartu eta aurrera eramane beharreko pausoak zehaztu zituzten. Herriko San Jose Komentuari zein erabilera eman jakiteko ere, proposamen ezberdinak egiteko aukera ere jarri zuen Udalak. Eta proiektu interesgarri ezberdinak jaso ziren.

Horretaz gain, gaur egunean pil-pilean dagoen hondakinen gaia aztertzeko, Udalaren ekimenez Hondakinen Batzorde Herritarra sortu zen. Batzorde horretan, herritarren hondakinen kudeaketa ezberdinen inguruko informazioa jaso, eta hausnartzeko aukera izan zuten.

en Ayuntamiento de Zumaia ha regulado su política de participación como base de su trabajo, y ha tratado de ser un Ayuntamiento transparente y práctico. Con la puesta en marcha

de distintos procesos participativos, el objetivo ha sido implicar a la ciudadanía en la toma de decisiones y en la creación de una visión conjunta y compartida de Zumaia.

Durante tres años consecutivos, se ha llevado a cabo el proceso de presupuestos participativos. En el 2010 se realizó también un proceso participativo sobre los residuos. Y para redactar los planes de



Prozesu horietaz gain, gaztedia eta berdintasun planak egiterako orduan ere, herritarrek izan dute zeresanik.

Beraz, Zumaiaiko Udalak parte hartze prozesuak ireki, eta herritarren iradokizunak jaso nahi izan ditu. Horrekin batera, herritarrek Udaleko ateak irekita ikustea ere nahi izan da. Horrela, Udala herritarrengana hurbiltzeko bidea egin da.

Komunikazioa ardatz

Eredu parte hartzailaren bidez, Udalak herritarrei herriko proiektu eta asmoen inguruko informazioa eman die. Hori izan da hain zuzen Udalaren beste helburuetako bat. Herritarrei informazio eman, eta Udal garden bat osatzea. Komunikazioa izan da erronka, eta horretarako baliabideak sortu eta osatu ditu. Horrela, 2009ko otsailean Zumaia Zu aldizkari hau argitaratzen hasi zen. Orduetik, bi hilean behin, herritar ororen postontzietan izan da Udaleko informazioa emateko.

Horrez gain, www.zumaia.net webgunea ere indartu da. Horrela, gaur egun, Udalak duen informazio oro argitaratzen da Udalaren atari horretan. Beraz, sarearen bidez, herritarrek eguneroko informazioa eskura dute.

Baina arlo orokor horietaz gain, edo

proiektu orokor horietaz gain, arloz arlo, azken urteotan, hainbat eta hainbat berrikuntza eta hobekuntza egin dira. Hemen, arloz arlo aurrera eramandako proiektuetako batzuk:

Euskara.

Zumaiaiko Udalak euskararekin eta euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezen duen konpromisoa sendotzeko hainbat neurri hartu ditu. Konpromiso horretako lehen pausoa herrian ordura arte indarrean zegoen euskararen inguruko ordenantza berritzea izan zen, 2008ko azaroan. Ordenantza berri hori gaur egun Zumaiaiko duen egoera soziolinguistikoari erreparatuta berritu zen. 2009an, berriz, Zumaiaiko Udala Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartu zen. Gaur egun, Euskal Herriko 61 herri daude mankomunitatean sartuta.

Horretaz gain, Zumaiaiko Udalaren Euskara Sailak garrantzia berezia eman dio herriko hizkuntza mantentzeko eta gordetzeko. Hori horrela, Badihardugu Euskara Elkartearekin elkarlanean, Ahotsak proiektua jarri zuten abian. 2007an jarri zen martxan Zumaiaiko Udalak emandako beka baten bidez, ahozko ondarea biltzeko proiektua. Ondoren, ordea, Badihardugu elkartearekin egindako hitzarmen baten bidez, aurretik egindako lan hori osatu zen. Horrela, herriko kultur ondare eta

juventud e igualdad, también se contó con la colaboración de los ciudadanos y ciudadanas.

Mediante estos procesos participativos, y algunos más que se han realizado, el ayuntamiento ha querido impulsar la comunicación entre el consistorio y el pueblo.

Para ello también han reforzado los canales de comunicación. Desde febrero del 2009 se buzonea cada dos meses esta revista 'Zumaia zu' en todos los buzones del municipio.

A su vez se ha reforzado la web www.zumaia.net. A través de este medio cada día el ayuntamiento publica toda la información relevante para la ciudadanía.

Junto a este cambio de estilo, también ha puesto en marcha obras y proyectos específicos, como por ejemplo:

Euskera.

Se ha reformado la ordenanza municipal, y desde el 2009 el ayuntamiento de Zumaia es miembro de UEMA.

Cultura.

Se ha hecho un esfuerzo en mejorar las infraestructuras culturales. Con ese objetivo se acaba de abrir la Alhondiga, la nueva casa de cultura.



herriko historia osatzen duten istorio txiki eta preziatuak gorde dira.

Gaztetxoaren artean hitanoa bultzatzeko proiektua ere aurrera eraman da Mintzola fundazioaren bidez. Proiektu aitzindaria izan da Zumaiakoa, baina hemen izandako harrera eta emaitzak ikusi ondoren, beste herri batzuetan ere jarri da martxan herriko hitanoa gazteen artean sustatzeko ekimena.

Kultura

Azken urteotan Zumaian kultur azpiegituren alde egindako indarra aipatzea ezinbestekoa da. Azpiegiturei emandako garrantziaren emaitza da maiatzean ireki berri den Alondegia. Bertan, erakusketa aretoaz gain, Udal Liburutegia eta Udalaren Kulturaren Departamentuko egoitza ere badaude, besteak beste. Gainera, eraikin zahar berri horri herritarrek adostutako erabilera eman zaio.

Horretaz gain, Uxategiko obrak ere hastear dira. Uxategia herriko musika taldeentzat egokituko da. Bertan entseatzeko hainbat lokal egokituko dira, eta musika taldeek beraien grabaketak egiteko modua ere jarriko

da. Beraz, laster, herriko musika taldeen baldintzak ere hobetuko dira.

Kultur foroa osatzeko lehen saiakera ere egin zen. Bide horretatik Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera aurrera eramandako 'Kultura Zumaian 2020' ekimenean berriro kultur foroa edo mahaia izateko beharra zegoela ondorioztatu zen, eta berriro organo hori berrabiatu eta indartzeko konpromisoa hartu zen.

Ingurumena

Herriko ingurumena eta izadia zaindu eta herritarren artean ingurumena zaintzeko sentsibilizazio kanpainak egiteaz gain, bestelako neurri asko hartu dira ingurumenaren inguruan, Zumaian. Aipatu bezala, Hondakinen Batzorde Herritarra sortu zen 2010 urtean Udalaren ekimenez. Batzorde herritarrek prozesuaren bukaeran egindako eskaeren ondorioz Zumaia Udalak Zumaia hondakinen bilketen inguruko azterketa eskatu zion Garbitania enpresari. Laster jakinaraziko dira azterketa horren emaitzak.

Herrian baratza ekologikoak ere udaberrian hasi dira fruituak ematen.

Udaberrietik, garaian garaiko barazkiak zaindu eta hazten ikusteko aukera dago Marianton parkean. Aurrera begira, baratza horietan herritarrentzako eta herriko gaztetxoentzako ikastaroak antolatzen asmoa du Udalak.

Ingurumena eta garraioa ere gaur egun oso lotuta dauden bi gai dira. Izadi jasangarriago bat egin nahian, Zumaia Udalak zenbait neurri hartu ditu, eta herritarren artean mugitzeko ohiturak aldatzeko proiektuak jarri ditu abian. Horrela, azken urteotan bidegorrien sarea zabaldu da herrian, eta horretan jarraitzen du. Horretaz gain, bidegorri horietan ibiltzeko bizikletak eskaintzen dituen Mugi zerbitzua ezarri zen.

Bizikletez gain, Oikia auzora joan eta Oikiatik Zumaia itzultzeko zerbitzua eskaintzen duen Auzobusa ere jarri zen abian. Horrela, auzotarrei zerbitzuak eskaintzeaz gain, jasangarritasunaren bidean pauso bat gehiago eman nahi izan da.

Berdintasuna

Oraindik ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean, pauso asko eman behar dira, eta

Medioambiente.

La sensibilización del medio ambiente y la sostenibilidad son algunos de los temas que se han tratado en los últimos años. Para crear un núcleo urbano más sostenible se ha

También, se van a realizar algunas obras para acomodar el edificio Uxategia para los grupos de música del pueblo. No obstante, se ha hecho un esfuerzo para crear las bases que reforzarán la actividad cultural,

reflexionando, mediante el proceso de participación 'Kultura Zumaian 2020'. En este proceso se ha analizado la creatividad cultural que hay en el pueblo y sus potencialidades, para que la cultura de Zumaia se refuerce.

horren jakitun da Zumaia Udalak. Hori dela eta, Berdintasun Saila sortzea erabaki zuen. Lehen gizarte zerbitzuen barrutik ematen ziren hainbat kontu beregan hartu eta herrian berdintasun plana aurrera eramateko sortu zen sail hori. Horretarako guztirako teknikari bat ere kontratatu zen; eta, gaur egun, berdintasun plana aurrera eramaten dihardu.

Gizarte zerbitzuak

Azken urteotan krisia dela medio gizarte zerbitzuak inoiz baino beharrezkoagoak dira herritarrentzat. Hori dela eta, Zumaia Udalak ahalegin berezia egin du arlo hori indartzeko. Zumaia Udalak ez du atzean herritarrik utzi nahi, eta horregatik, eta Udalaren erantzukizuna delako herritarren eskaerei erantzuna ematea, gizarte zerbitzuak indartu dira. Horretarako, aurretik aipatu bezala Berdintasun Saila Gizarte Zerbitzuen Sailetik bereiztu da, eta berdintasuneko gaitiaz arduratuko den teknikari bat kontratatu zen. Horretaz gain, Gizarte Zerbitzuetako giza balibideak ere bikoiztu egin dira.

Gaztedia

Herriko gazteenak ere ez ditu albo batera utzi nahi izan Udalak. Arrazoi horregatik, eta herriko gazteak direlako herri honen ondorena, Ludoteka eta Gaztegunea daude abian. Horretaz gain, 2009ko urrian Udalak eta herriko gazteek egindako hitzarmen baten bidez Torreberri eraikinean Gaztetxea dago.

Kirola

Azken urteotan, Zumaian bada ezin ahaztu daitekeen gai bat: Frontoia. Tira-bira asko izan dira azken urteotan, proiektuak aldaketak ere izan ditu, baina azkenean dena ondo bidean da Zumaia behar bezalako frontoia izateko. Gainera, Udalarentzat garrantzitsua izan da frontoiaren erabiltzaileekin zehaztea frontoiaren inguruko hainbat eta hainbat zehaztapen. Izan ere, erabiltzaileek dakite ondoen zer den egokiena. Frontoiekin jarraituz, Odieta frontoia ere berri da, auzoa eraberritzearekin bat, eta frontoi hori ere laster izango da erabiltzeko moduan.

2009. urtean lehen aldiz egin zen Flysch Trail Mendi lasterketa. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da, eta urte gutxian garrantzia handia hartu du lasterketa honek. Gainera, beste hainbat ekimenekin batera, Zumaia ezagutarazteko ekintza ezin hobe da.

Kirol arloan, beste erabaki garrantzitsua Kirol Patronatuaren estatutuak onartzea izan da. Horrela, Kirol Patronatua eratuta gelditu da. Modu horretara, kirol balibideak era koordinatuan kudeatu nahi ditu Udalak.

Hirigintza

Hirigintzari dagokionez, bi erabaki nagusi izan dira garrantzitsuenak azken urteotan. Alde batetik, Zumaia Lantzen herrian kokatzea eta erakunde horren kudeaketa eredia aldatzea. Bestetik, Zumaia Udalak babestutako etxebizitzak bultzatzeko politika indartu du. Eta babestutako etxebizitzak herri osoan zehar egitea ahalbidetu du. Horri lotuta, Zumaia Udalak eta Eusko Jaurlaritzak babestutako alokairuzko etxebizitza babestuak 84 etxebizitza egiteko hitzarmena sinatu dute.

Etxebizitzekin jarraituz, Odieta auzoak behar zuen eraberritzea ere ia bukatuta dago. Horrela, auzoa berritzeaz gain, zenbait etxe ere eraiki dira bertan, eta Zumaia Lantzenek salgai ditu.

Hala ere, Zumaia Udalak, etxebizitzak nolnahi ez eraikitzeke, etxebizitzaren inguruko azterketa bat egin zuen.

Han-hemenka egindako obra eta konponketa txikiez gain, erdigunea eta auzoetan egin dira proiektu ezberdinak. Hala, herriko irisgarritasuna hobetze aldera, igogailuak ezarri dira herrian: Jadarrekoa, Ardantzabidetik Alde zaharrerakoa eta Erribera kaletik Mari kalerakoa.

Aipatzekoa da, baita ere, Txomin Agirre kaia eta Mendaro Marinela kalea lotzen dituen Moilaberriko zubiaren eraberritzea. Berritze horrekin, lehen ez zuen irisgarritasuna lortu du zubi horrek.

ampliado el recorrido de los carriles bicicleta. Y se ha puesto en marcha el servicio de bicicleta Mugi.

Igualdad.

En la búsqueda de la igualdad entre mujeres y hombres, el Ayuntamiento de Zumaia ha apostado por crear el departamento de igualdad. Su labor principal es llevar a cabo el plan de igualdad diseñado mediante un proceso participativo.

Servicios sociales.

Por motivo de la crisis de los últimos años, cada vez más gente ha sentido la necesidad de acudir a estos servicios. El Ayuntamiento de Zumaia no quiere dejar atrás a ningún ciudadano o ciudadana y por ello ha duplicado los recursos humanos de este departamento.

Juventud.

En el 2009 el ayuntamiento llegó a un acuerdo con la juventud del pueblo, y desde entonces los jóvenes del pueblo se autogestionan en el Gaztetxe de Torreberri.

Deporte.

En el deporte cabe destacar el tema del frontón, ya que en los últimos años ha creado muchos quebraderos de cabeza. Pero parece que todo va en buen camino, y pronto Zumaia tendrá un frontón a su medida.

En esta área también se debe mencionar los pasos dados para la creación del Patronato de deporte.

Urbanismo.

En urbanismo el principal objetivo ha sido la generación de viviendas accesibles y asequibles. Para ello, ha sido vital relocalizar la oficina de Zumaia Lantzen en Zumaia, y cambiar su modo de gestión. Una vez realizado esta operación, y con la colaboración de dicha entidad el Ayuntamiento ha promovido construir casas de protección en distintas zonas. En este sentido es importante recordar el acuerdo firmado con el Gobierno Vasco para construir viviendas protegidas de alquiler.

Kultur espazioak herrira zabalduz



Liburutegia ere abiada onean

Maiatzaren 11n ordutegi bereziarekin jarri zen abian liburutegi berria. Ikasleentzat azterketa garaia izanik, horientzat zerbitzu zabala eskaintzeko, goizetik ilunabarrera arte, etenik gabe izaten da zabalik (ekainaren bukaera aldera arte horrela izango da).

Zumaiarrek erantzun ona eman diote liburutegi berriari, eta "gustura" da Josu Egaña, Udal Liburutegiko liburuzaina. Erabiltzaileek asko egin dute gora; "maiatzean Forondan izaten ziren bisitak hirukoiztu egin dira", azaltzen du. Bi arrazoi izan daitezke horren erantzule; bata liburutegi berriak jendea erakartzea, eta, bestea, Foronda joateko zailtasunak zituzten jendea orain liburutegira joaten hastea. Egañaren arabera, "denborak esango du bi arrazoi horietako zein den indartsuagoa".

handia, egokia, polita eta herriaren erdi-erdian, alondegian. Hortxe dago maiatzaren 11tik Zumaiako kultur etxe berria. Bertan bilduta daude haur eta helduen Udal liburutegia, Udalarren Kultura Sailaren eta Berdintasun eta Gaztedia Sailaren bulegoak, herritarrentzat hainbat bilera gela eta erakusketa aretoa.

Aldaketa horien bidez, Forondatik herriaren erdira aldatu nahi izan dira herriko zerbitzu horiek. Horrela, herritarrek eskueran dituzte maiatzetik zerbitzu horiek. Hala ere, Forondak irekita segitzen du, eta bien artean Zumaiako kultur azpiegitura zabaltzen dute. Forondan segitzen dute ikastaroek, KZ guneak eta hainbat taldek, besteak beste.

Ireki zen egunetatik bertatik, herriko alondegia zaharra kultur ale berriz betetzen hasi da. Beheko solairuan dagoen erakusketa gelak, dagoeneko bi erakusketa izan ditu ikusgai, eta kultur ekintza ezberdinak ere hartu ditu. Besteak beste, Kandido Urangak eta Inazio Tolosa herritarrek, hurrenez


hurren, *Jon Miranderen inguruan* ikuskizuna eta *Xentimorik gabe* antzezlanaz plazaratu zituzten maiatzean bertan. "Jendetza dabil hasiera honetan", azaldu du Miriam Romatet Zumaiako Udalarren Kultura teknikariak. Jendea "esker onez eta gustura" inguratzen da Alondegira. Herritarrek harrera ona egin diete bai erakusketei eta, baita, bertan antolatutako kultur ekintzei ere.

Alondegia herritar ororen kultur erreferentzia da, eta hori horrela izan dadin egingo du lan Zumaiako Udalak. Hala ere, guztion etxea izanik, bera zaintzea eta txukun mantentzea guztion ardura dela ere gogorarazi nahi du Udalak. Izan ere, azken aldiak igogailuak, behar ez duen erabilera izan du, eta benetan beharra dutenen erabilera oztopatu da. Beraz, igogailua ez dela jolaserako tresna gogorarazi nahi du Zumaiako Udalak. Kultur etxera haur eta gaztetxoekin joaten diren helduei ere haurrak kultur etxean gora eta behera libre ez uzteko eskatzen zaie, liburutegian daudenak eta erakusketa ikusten ari direnak molesta ez ditzaten.

Bisitarien artean, nabarmen gora egin du hurren bisiten kopuruak. "Haurrek gora egiteaz gain, konturatu gara, Forondara joatea zail zuten ezinduek edo adineko jendea ere hasi dela liburutegiko erabiltzaile izaten", gaineratu du.

desde principios de Mayo Zumaia disfruta de un nuevo equipamiento cultural, la Alondegia, que alberga la biblioteca municipal, el Departamento de Cultura de Igualdad y Juventud. Este nuevo recinto alberga varias salas de estudio y una sala de exposiciones. Según la técnico de Cultura Miriam Romatet "se ha acercado mucha gente en este inicio, tanto a las exposiciones como a las actividades culturales. La biblioteca también ha triplicado la cantidad de visitas. Ese despunte puede ser debido al acercamiento de las instalaciones a la gente o a la curiosidad propia de lo nuevo.

Haurrak euskaraz erregistratzeko bidean



gaur egun, oraindik ezin dira haur jaioberriak ezin dira euskaraz erregistratu Zumaiake Bake Epaitegian. Hala ere, aukera hori izateko lanean ari dira, eta, laster, euskaldunon hizkuntza eskubide hori ere errespetatua izango da Zumaiake Bake Epaitegian.

Gaur egun, ordenagailuko aplikazio informatiko baten bidez erregistratzen dira haurrak, eta hori ezarrita izanez gero, erregistroak euskaraz egiteko modua dago. Euskal Herriko hainbat herritan dagoeneko ezarrita dago, eta Zumaiake Bake Epaitegian horretan ari dira.

Bertako langileek dagoeneko egina dute programa informatiko hori erabiltzeko beharrezkoa den ikastaroaren zati teorikoa, eta beren ordenagailuetan aplikazio hori ezartzeko zain daude zati praktikoa egiteko. Aplikazio hori ekainaren hasieran ezarriko zaie, eta, beraz, ikastaroa amaitu ondoren, Zumaian euskaraz inskribatzeko eskubidea bermatua izango da.

Hala ere, maiatzaren 16an euskaldunon hizkuntza eskubideen zapalkuntzari erreparatuz, eta batik bat haur jaioberriari erregistratzeko momentutik hizkuntza eskubideak errespetatzeko eskatuz mozio bat onartu zen.

Mozio horretan lau puntu nabarmentzen dira:

1. Euskararen ofizialtasuna ezartzen duen legea onartu eta 28 urtera ezin delako haurra euskaraz erregistratu, Zumaiake Udalak bere harridura eta amorrua azaltzen ditu.
2. Dagokien arduradunei eskatzen zaie euskaraz bake epaitegietan eta erregistro zibiletan merezi duen tokia ematea eta euskaldunon eskubideak beste hizkuntza ofizialeko hiztunen parekoa izatea.
3. Gogorarazi nahi du egoera soziolinguistikoagatik era euskararen normalizazioan duten tokiagatik, udalerri euskaldunetan bereziki

larriak direla beste administrazioek euskaldunei euskaraz bizitzeko jarritako trabak eta mugak. Bide horretatik, eta "euskara 212 xostenaren harira, eta hor aipatzen den bezala, Zumaiake Udalak jaurlaritzari eskatzen dio udalerri euskaldunetako hizkuntza politikaren oinarri hartzeko eta udalerri euskaldunei lehentasunezko trataera garbia ematea.

4. Azkenik, herritarrei dei egiten die Zumaiake Udalak, herriko euskaldunei bake epaitegian zerbitzua euskaraz eskatzeko eta zerbitzua euskaraz jaso ezean erreklamazioak jartzeko, bai bake epaitegian bertan, bai bestelako erakundeetan ere (Behatokia eta UEMA, adibidez).

Legez, 2005etik ez dago inongo oztoporik haurrak euskaraz erregistratzeko ez Bake epaitegian eta ezta erregistro zibiletan ere. Izan ere, orain dela sei urte aldatu zen Erregistro Zibiletako Legean gaztelania ez beste hizkuntza ofizialak erabili ahal izateko legezko aldaketa.

el Juzgado de Paz de Zumaia instalará en Junio un nuevo programa informático que permite el registro en euskera de los recién nacidos.

Los trabajadores del Juzgado de Paz están realizando el curso formativo para familiarizarse con el nuevo programa, con lo que sólo queda su instalación para dar comienzo a las inscripciones en euskera.

Con ese nuevo paso se garantizará el procedimiento para cumplir el derecho ya recogido en la ley del año 2005.

Lasterketa sendotzeko apostua



Uztailaren 10ean izango da aurtengo Flysch Trail Mendi Lasterketa. Hirugarren edizioa honetarako berrikuntzak prestatu dituzte. Besteak beste, aurreko urteetan baino luzeagoa izango da helmugara iristeko ibilbidea; iaz baino 3.500 metro luzeagoa, hain zuzen. Lasterketaren hasieran, Josune Bereziartu eta Rikar Otegi eskalatazaileak, eta Pako Iriondo Euskal Herriko Mendi Federazioko Ohorezko Lehendakaria omenduko dituzte. Rikar Otegi omenduak, gainera, lasterka ere egingo du proban.

Apiriletik irekita dago izen emateko epea, eta uztailaren 5a arte horrela izango da, beti ere, izen emateko dauden 500 plazak ez badira betetzen. Izen emateko bi bide daude; alde batetik, Zumaiako Turismo Bulegoan eman daiteke izena, eta bestetik, www.kirolprobak.com webgunearen bidez egin daiteke.

Aurtengoan ere lau helbururekin antolatu dute lasterketa. Lehen helburua kirola bera da, eta Flysch-a bezalako fenomeno baten inguruan lasterka egiteko

aukera izatea. Gainera, lasterketa hori Euskadiko Txapelketako lasterketa da. Bigarrena, Zumaia ezagutaraztea da. Herriaren izena eta izana ezagutarazteko bide polita da lasterketa. Hirugarrena, Flysch-aren garrantzia azpimarratu nahi dute antolatzaileek. Zientifikoki eta geologikoki fenomeno horrek duen garrantzia erakutsi eta bere zaintzaren ardura azpimarratu nahi da. Eta laugarren, motibazioa, solidaritatea da. Proba horren bidez ateratzen den dirua minbizia duten haurren gurasoen elkarteri, Aspanovasi emango diote beste urteetan egin ohi izan duten bezala. Helburu horrekin lotuta, antolatzaileak 0,50 euroko prezioa duten errifak saltzen ari dira, eta uztailaren 10ean ere Erribera kalean izango dira salgai.

Lasterketa antolatzaile diren, Bosco Garitano, Txiki Gorostola, Iñigo Saez Txolo eta Fran Aizpuruaren helburu nagusia lasterkariak mimatzea eta zaintzea da. Hori lortzeko asmoz, eta zerbitzu eskaintza zabaltzeko asmoz, aurtengorako haurtzaindegi zerbitzua ere prestatu dute. Hala ere, lasterkariak

ondo zaintzea bezain garrantzitsua da ingurua bera ez kaltetzeko neurriak hartzea.

Lasterketa urte gutxian sendotu da, eta Bosco Garitano antolatzaileen bozeramailearen arabera, "hemendik aurrera pauso seguruak eta sendoak eman behar ditugu. Ondo pentsatuta eta presarik gabe", azaltzen du.


el 10 de julio se celebrará la tercera edición de la carrera de montaña Flysch Trail de Zumaia. Para reforzar la presente edición los organizadores han introducido algunas mejoras.

Se trata de una carrera que poco a poco se está consolidando y que se está haciendo cada vez más conocida.

Este año, al principio de la carrera se homenajeará a los escaladores Josune Bereziartu y Ricar Otegi y al presidente de honor de la Federación Vasca de Montaña Pako Iriondo.

Azken sakea

Zumaiako frontoi luzea eraikitzeko pauso erabakigarria eman zuen Zumaiako Udalak maiatzaren 16ko plenoan; Inmobiliaria Sukia eraikuntza enpresak eraikiko du frontoia.



azkenean, Zumaian argitu da frontoiaren gai korapilatsu eta luzea, eta laster hasiko dira bera egiteko lanak. Ez da ez motza eta ez erraza izan Zumaiako Frontoi estaliaren gaia, baina, azkenean, dena ondo bidean da. Maiatzaren 16ko udal plenoan mahai teknikoak egindako txostena ontzat jo zen aho batez. Horrela Sukia SA enpresak egindako eskaintza egokia dela ondorioztatu zuen plenoak, eta eskaintza hori onartu zuen. Behin plenoak eskaintza hori onartuta, frontoia lanak gauzatzea besterik ez da gelditzen. Andoni Etxaniz Hirigintza batzordeburuak esan bezala, "partida luzea eta gogorra izan da, baina azkenean bukaera ona izango du".

Frontoiak 700 ikusletik gora hartuko ditu erremintako partiduetan. Bestelako ikuskizun batzuetarako ere erabiliko da frontoia; hala nola, bertsolariak, pailazoak... eta ikuskizun horietan 900tik gora sartzeko aukera izango da.

Frontoia egiterakoan, harreman zuzena izan du Udalak ondoren erabiltzaile izango direnekin: "Herrian pilotaren munduan dabiltzanekin zehaztu ditugu kantzaren eta joko eremuaren luzera, zabalera, altuera eta materialak. Hau da, ondoren frontoiaren erabiltzaile izango direnen eskaerei erantzun diegu", azaldu du Etxanizek.

Frontoia bai, baina ez edozein preziotan

"Frontoi ederra egitera goaz, baina frontoia egiterako orduan ere ez dugu gure etxebizitza politika hipotekatu nahi izan", gaineratu du Etxanizek. Frontoia egitearekin batera, Ardantzabiden Udalak dituen partzeletan etxebizitza babestuak egingo dira. Hau da, Ardantzabideko partzela horien truke egingo da frontoia. Baina partzela horietan etxebizitza babestuak egingo ditu enpresa eraikitzaileak.

al fin ya el frontón de Zumaia va en buen camino, ya que en el pleno del 16 de mayo se aprobó con unanimidad el informe de la licitación que hizo la mesa técnica. Con este paso se da por buena la oferta realizada por la empresa Inmobiliaria Sukia, y los tramites siguen adelante. Lo siguiente será construir el tan ansiado frontón largo.

Si al frontón, pero no a cualquier precio "Vamos a hacer un gran frontón pero no lo haremos a cualquier precio. No vamos a hipotecar nuestra política de vivienda", puntualiza Andoni Etxaniz. En la misma operación del frontón se ha acordado construir viviendas protegidas en Ardantzabide. Sukia se hará cargo de construir el frontón y las viviendas protegidas de Ardantzabide a cambio de las parcelas de dichas casas.

Babestutako etxeen politika indartzen



Zumaiako Udalak maiatzaren 16an egindako plenoan erabaki garrantzitsuak hartu zituen herrian etxebizitza babestuak eraikitzeko. Izan ere, Ardantzabiden eta San Migelen etxebizitza tasatuak eta babes ofizialekoak egitea onartu zen. Ardantzabiden, 6 babes ofizialeko eta 32 etxe tasatu egingo dira, eta San Migelen 15 tasatu egingo dira. Proiektu horien bidez, Zumaiako Udalak hasieratik bultzatu duen etxebizitza babestuak egiteko politika indartu eta bultzatu nahi du.

Ardantzabide

Frontoia egitearen ordainetan Ardantzabide auzoko lur eremu bat eskuratuko du Inmobiliaria Sukia enpresak, eta bertan, 38 etxebizitza babestu egingo ditu: 6 etxebizitza babes ofizialeko eta 32 etxebizitza tasatu. Beraz, kolpe batean, frontoiaz gain, etxebizitza babestuak izango ditu Zumaiak. Etxe horiek, 90 metro koadro inguru izango dituzte, eta Ardantzabiden orain arte eraikita

dauden etxeen irakurketa arkitektoniko berdina egingo dira.

Luxutik, babestura

San Migel auzoan, berriz, lehen Inmobiliaria Orio enpresak 23 luxuzko egiteko asmoa zuen gunean (krisia medio eraiki gabe zituen, eta enpresa hori eta Udala akordio batetara iritsi dira, eremu horri irtenbidea bilatzeko), orain 32 etxe egingo dira; horietatik 15 etxebizitza tasatuak izango dira, eta 17, aldiz, libreak. Era horretara, San Migel auzoan zeuden hainbat arazori aurre egin nahi izan dio Udalak. Ur saneamendua, telekomunikazioak eta gaur egun duen egoera penagarriari buelta eman nahi zaio akordio horren bidez.

Etxebizitza horiek eskuratu nahi dituenak, babestutako etxebizitzak eskuratzeko ohiko bidea jarraitu beharko du. Hau da, Etxebide programan izena emanda duten pertsonen artean eginda zozketa. Zozketa egin aurretik, ordea, Zumaiako Udalak jakinaraziko du zein egun izango den zozketa horietan

sartzeko izen emateko azken eguna. Izen ematean, babes ofizialeko eta udal babeseko etxebizitzetan eman daiteke izena. Izena emandako babes motaren arabera egingo dira zozketak.

el Ayuntamiento de Zumaia ha dado un nuevo impulso a su política de vivienda protegida. El pleno del 16 de mayo aprobó construir viviendas protegidas en los barrios de Ardantzabide y en San Migel. En Ardantzabide se construirán 6 viviendas de protección oficial y 32 de protección municipal. En el barrio San Migel a su vez, se construirán 15 viviendas tasadas.

Para optar a algunas de estas casas se tendrá que seguir el proceso habitual para optar a viviendas protegidas. Las personas interesadas en participar en el sorteo de estas casas tendrán que estar apuntadas en Etxebide.

Ekainaren bukaeran, sanpedroak



Ekaina bukatzerako San Pedro Jaiak izango ditugu herrian. Ekainaren 29a izango da sanpedroetako egun handia, baina aurreko eta ondorengo egunetan ere izango da zer ikusia.

Ekainaren 28ko gauerdian bandera igoko da udaletxean, eta horrekin batera San Pedro Egunari hasiera emango zaio. Urtero bezala, festak girotzeko, eta herritarrei festetaz gozatzeko, festa giroko musika, txaranga eta dantza ikuskizunak bestelako ekintzekin nahastuko dira.

Horretaz gain, eta festetarako giro eta gogoia egiteko, ekainaren 26rako elikadura eta artisau azoka antolatu du Zumaia Udalak. Azoka horretaz gozatzeko eta haurren tailerretan parte hartzeko aukera egun osoan izango da.

a finales de junio se celebrarán las fiestas de San Pedro en Zumaia. El día grande de San Pedro es el día 29, pero los días anteriores y posteriores ya habrá con que disfrutar en las calles de Zumaia. El 28 a medianoche se alzará la bandera en el ayuntamiento y con ello se le dará comienzo al día principal de las fiestas.

Como es habitual, los días festivos habrá en las calles conciertos y txarangas de música y algunos otros espectáculos mezclados con otras actividades.

El 26 de junio, domingo, se celebrará durante todo el día una feria de artesanía y alimentación.

Martxoak 11

1- Aurreko bileretako bi aktak o nartu ziren.

2- Ogasuna

2.1. 2011. ko 1. kreditu aldaketa onartu zen aho batez..

3- Pertsonala.

3.1. Udaleko langilea den Alaitz Zabalegiren bateragarritasun eskaera onartu zen aho batez.

4 -Mozioa

Usurbilgo itunaren mozioa onartu zen Alkateak baldintzatuta emandako boto bidez.

Apirilak 28

1. Ogasuna.

1.1. Aho batez onartu zen EAE-ren eta Zumaia Udalaren arteko hitzarmena onartzea, EAE-ko administrari zuzendutako idazkiak Udal erregistroan aurkezteko.

2. Hirigintza

2.1. Foru Aldundiaren esku-ratze zentralizatuko sistemari-foru kontratazioaren zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zen aho batez.

2.2. Gipuzkoako kontratazioen zentralak eramango duen argindar-hornidura espeditari atxikitzea onartu zen aho batez.

Maiatzak 16

1. Ogasuna.

1.1. Zumaia Udaleko 2011. urterako 6. kreditu aldaketa onartu zen aho batez.

1.2. Musika Patronatuko 2011. urterako 1. kreditu aldaketa onartu zen. Alde bozkatu zuten EAJ (4), Talde Mixtoa (3), Aralar (2), EA (1) eta PSE-EE (1) alderdiek. Kontra bozkatu zuten Pilar Etxabek.

1.3. Zumaia Udaleko 2010. urteko aurrekontuaren likidazioaren kontu eman zen.

1.4. Musika Patronatuko urteko aurrekontuaren likidazioaren kontu eman zen.

1.5. San Juan egoitzako urteko aurrekontuaren likidazioaren kontu eman zen.

2. Hirigintza.

2.1. 07 HA-Ardantzabideko 7.1 eta 7.2 partzelak eskualdatzeko eta 02 HA-Punta-noetan estalitako frontoia eraikitzeko kontratazio mahaiak egindako proposamena onartu zen. Alde bozkatu zuten Talde Mixtoa, Aralar, EA, PSE-EE, Pilar Etxabe. Abstenitu egin zen EAJ.

2.2. Zumaia 18 HA-Kortako (lehen 32 HGA) aldaketa xehekatua egiteko egitasmo bereziaren behin betiko onarpena eman zen aho batez.

2.3. Zumaia planeamenduko arau subsidiarioetako 17 area-Artadiko eraikigarritasunaren zati bat udal etxebizitza tasatuen erregimenera atxikitzeko hitzarmena onartu zen. Alde bozkatu zuten Talde Mixtoa, EA, PSE-EE Pilar Etxabek.. Abstenitu egin ziren EAJ eta Aralar.

3. Pertsonala.

Irizpena: Udaleko arkitekto teknikoa den Eli Zubeldia Etxabe andrearen bateragarritasun eskaera onartu zen aho batez.

4. Kirolak.

Elkartek Zumaia udal-loralak erabiltzeko modua arautzen duen udal araudia onartu zen aho batez.

5. Euskara.

Zumaia Talde Mistoak aurkeztutako proposamena: umeak euskaraz inskribatzeko eskubidearen aldeko mozioa onartu zen. Alde bozkatu zuten EAJ, Talde Mixtoa, Aralar, EA eta Pilar Etxabek. Abstenitu egin zen PSE-EE.



Zumaiarro eskerrak eman nahi dizkiegu pasa den Udal eta Foru hauteskundeetan eman diguten babesagatik. Parte-hartzea altua izan da. Hamar zumaiarretik ia zazpi hurbildu da hautes-mahaietara botoa ematera (% 65). Parte-hartze horrek emaitzari legitimitate demokratiko altua ematen dio.

Bildun 2.057 boto jaso ditugu, botoen % 43. Gehiengo osotik (7. zinegotzitik) oso hurbil geratu gara, 15 boto-ara besterik ez. Argi dago zumaiarren gehiengo zabalak Bildu aukeratu duela herriko erakundeak kudeatzeko. Hemendik aurrera herritarren mandatu hori onartzea eta arduraz eta umiltasunez kudeatzea dagokigu.

Arduraz eta umiltasunez jokatu dugula diogunean, esan nahi dugu blokeen aroa bukatzeko asmoa dugula. Udalbatzarrean ez gara joango 7 zinegotzi 6ren kontra jartzera. Zubiak eraikiko ditugu eta guztiekin adostasunak bilatzen ahaleginduko gara kontsentsuak eta herri-kohesioa lortzeko. Gehiengo badakugu, baina urrunago joan nahi dugu, herritar, alderdi eta eragile guztiekin adostasunera iristeko ahaleginean. Ahalik eta ikuspegi gehien integratzen saiatuko gara, herritarrek politikarior hori eskatzen digutelako.

Emaitzen aurrean beste balorazio eta hausnarketa batzuk ere egiten ditugu. Herritarrek babesa eman diote azken legegintzaldian Zumaia Udalean politika egiteko moduari. Zentzu horretan, herritarren mezua argia da, udal-kudeaketa independentea eta gardena mantendu behar dugu, parte-hartzea sustatzen duena eta ezkerreko politika soziala lehenesten duena.

Gazteen bozka Bildura etorri dela konstatatu dugu. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu gazteei beren lanagatik. Bilduk konektatu egin du gazteekin eta beren arazoekin. Gazteak eta gu identifikatzea lortu dugu. Orain gazteek Udala egitasmo eta ametsak gauzatzeko tresna gisa ere ikustea lortu behar dugu.

Azkenik, beste behin ere emaitzak agerian utzi du Zumaia herri euskalduna eta abertzalea dela. Hezkuntza politika edo inklusio-programak definitzerakoan kontuan hartu beharreko datua da hori ere. Euskal Herrian bezala eta, batez ere, Gipuzkoan bezala, Zumaian ere Bilduren olatua gogor sentitu da. Zumaia Bildutik ere lanean jarraituko dugu, herritarren babesa eta begirunea irabazten, Udaletik egin ditzakegun ekarpenak egiten, Euskal Herrira normalizazio politikoa, autodeterminazioa, justizia soziala eta bakea ekartzeko.



idatzi hau ekainaren 1ean egin da, beraz, zuena iristerako zaharkituta egon daiteke, gobernua osatuta eta paktuak argituta egon baitaitezke. Dena den, EAJk edozein paktutara iristeko duen edo izan duen jarrera ezagutzeko balio du.

Hauteskundeak Bilduk irabazi ditu. Beraz, lehenik eta behin, zorionak emaitzengatik. Egia da, EAJk babes handia lortu duela eta azken Udal Hauteskundeetan baino 400 boto gehiago lortu dituela. Ondorioz, presentzia handiagoa izango dugu; 5 izango gara kargua hartuko dugunak, eta eman diguzuen ardura horretaz jabetuta koherentziaz eta zintzo lan egingo dugu. Mila esker konfiantza jarritakooi. Ez dizuegu huts egingo! Gure jokaera hiru premisatan oinarritzen da:

1. EAJk ez du inor gobernutik ateratzea utzi beste asmorik ez duen hitzarmenik egingo. Ez atzo, ez gaur, ez bihar. Ez dugu parte hartuko helburu horri soilik erantzun dion akordioan. Duela 4 urte, gu baztertzea izan zen hartu zen erabakiaren helburu bakarra. Gaur, badira Bildu baztertzeko helburu bakarra dutenak. Guk, jarrera horri ez esaten diogu.

2. Eginkizun ezinbestekoa eta inoiz baino beharrezkoagoa dugu: bake-itxaropena ekintzez sendotzea, lan hori gure arlor eta erantzukizun politikora ekarriz. Hau da, oinarri etikoa eta demokratikoa indartu beharra daukagu, zutabe horren gainean bizikidetzara eraikitzeko, eskubideak errespetatu, ideia eta egitasmoei begirunea izanez eta elkar onarpenaz.

3. EAJk garbi du gobernua eskuratzeko eskubide nagusia hauteskundeak irabazi dituenari dagokiola. Hori horrela izanik, egia da, zilegizko gobernua gehiengoak osatzeko ahalmena duena da; eta hori da hemendik aurrera egin beharko dena, akordioak bilatu. Guk akordioetara iristeko eta elkarlanerako borondate osoa daukagu; eta, aldi berean, paktoak edota gobernu kolaborazioak oinarri sendoetan errotuta egon behar dutela uste dugu. Oso garrantzitsua izan daiteke akordioak "norekin" itxi, baina are garrantzitsuagoa egiten zaigu adostutakoaren edukia eta helburuak benetan ondo finkatzea, horrek emango baitio akordio bati herriaren mesederako balio erantsia. Horretarako programak azaldu, programak eta herri eredu ezberdinak alderatu, desadostasunak kokatu eta aurre egiteko akordioak adostu behar dira.

Programen eztabaiden garaia da, egoera sozioekonomikoari eta elkarbizitzari aurre egiteko neurriak inplementatzeko garaia. Akordioak bilatzeko ahalmena duenak aterako ditu aurrera ekimenak. Hori gobernutik edo oposiziotik egin daiteke. Errespettik abiatuta, EAJ lanean ariko da Zumaia atzean gera ez dadin.



en el comienzo de este nuevo mandato, lo primero es dar las gracias al pueblo de Zumaia por su comportamiento cívico al cabo del proceso electoral, y en especial a los ciudadanos que con su voto depositaron la confianza en el pse, tanto en las municipales, como a juntas generales, y en segundo lugar felicitar a BIldu por el resultado obtenido.

Esperamos que el día 11 de Junio se pueda elegir un alcalde o alcaldesa, que busque el consenso, y de verdad represente a todos los y las Sumariaras tanto a los que representamos los partidos, como aquellos que con sus votos a otras fuerzas políticas no han conseguido representación, porque todos y cada uno de los votos emitidos el día 22 representan la pluralidad política y social del pueblo.

Por nuestra parte de acuerdo con el programa de gobierno con el que fuimos a las elecciones, este será el marco en el que nos moveremos, aportando soluciones en la medida que podamos en la gestión del ayuntamiento, sobre todo en política social (programas de mayores, desempleados, y más necesitados). La reducción del gasto en todo aquello que no sea prioritario, y optar por la inversión con valor añadido (creación de empleo), de manera sostenida y sostenible en el tiempo, no apoyando políticas basadas en el ámbito identitario o que solo busquen contentar a una parte de la población, y sigan dividiendo a la misma en grupos cada vez más distanciados, sin soluciones de consenso y sin facilitar el necesario respeto de unos y de otros, en una convivencia en paz que nos permita salir de la crisis mejor preparados que cuando otros nos metieron.



después del domingo 22 se inicia un nuevo periodo político en Euskadi que en Zumaia hace tiempo que ya discurría.

Los resultados electorales de hace cuatro años posibilitaron una alcaldía diferente, que ha sido ratificada por los votos ciudadanos.

El cambio de mayoría permitió transformar la estructura municipal para así poder racionalizar el trabajo de los funcionarios y hacer más transparente la gestión de los políticos.

La gestión de Zumaia Lantzen suponía para nosotros el eje de esa transformación. La externalización del trabajo público, algo tan extendido ahora, supone en realidad un sobrecosto, además de un alejamiento de la transparencia del trabajo y de la inversión del dinero público. La nueva estructura que se creó hace un par de años nos ha permitido a todos un mayor control y conocimiento de una herramienta que se considera básica del desarrollo municipal.

Por otro lado la crisis económica que padecemos, añadido a la falta de previsión con la que se habían firmado importantes convenios urbanísticos, impuso unos ritmos en un principio muy lentos que poco a poco están viendo la luz y que suponen una respuesta a las demandas de los zumaiarras, de todos los zumaiarras.

Y por último decir que los ciclos personales en política tienen principio y fin, y en esta legislatura que comienza ahora la mayoría de los concejales lo serán por primera vez y estamos seguros que realizarán su trabajo con la misma ilusión que hemos tenido los que ahora nos marchamos.

agenda ekaina junio / uztaila julio

Ekaina / junio

Erakusketak / Exposición

Maiatzaren 26tik ekainaren 12ra, Alondegiko aretoan, 'Peregrinatio'. *Desde el 26 de mayo hasta el 12 de junio, en la sala de la Alondregia 'Peregrinatio'.*

Ekainaren 16tik uztailaren 3ra Donostiako Arkitektura Eskolaren ikasturte amaierako lanak. *Desde el 16 de junio hasta el 3 julio trabajos de fin de curso de la escuela de Arquitectura de Donostia.*

Uztailaren 8tik 24ra: Zumaiaiko txuri-beltzeko argazki lehiaketako lan onenak. Gaia: Garraiobideak. *Desde el 8 hasta el 24 de julio las mejores fotos del concurso en blanco y negro de Zumaia. El tema: Medios de transporte.*

Deialdiak / Convocatorias

Zumaiaiko Argazki Lehiaketa: Garraiobideak. Lanak aurkezteko epea: ekainaren 23a. *Concurso fotográfico de Zumaia: Medios de transporte. Fecha límite para entregar los trabajos: el 23 de junio.*

Komentuko bisitak: Ekainaren 4an eta 25ean. 17:30 eta 18:30ean. Izen ematea: Turismo bulegoan. 943 143396. *Visitas al convento, el 4 de junio y el 25. A las 17:30 y 18:30.*

Sendian programa formazioa. Menpekotasuna duten pertsonekin bizi diren familia zaintzaileei zuzendutako formazioa. Euskaraz, ekainaren 6tik 9ra. 15:00-17:00 bitartean. Izen ematea: Gizarte Zerbitzuen Branka bulegoan. 943 862200. *Programa de formación con familiares con dependencia. Se impartirá el curso en castellano del 13 al 17 de junio.*

Ekainaren 6tik 12ra Beheko Plaza elkarteak Udalaren babesean antolatuta, Pertsona Nagusien Astea. *Del 6 al 12, Semana de la tercera edad.*

Osteguna, 9 Jueves

21:45ean Zine Forum *Whinter's bone. Cine Forum 'Whinter's bone'.*

Ostirala, 10 Viernes

19:00etan hasita, Ludotekako ikasturte amaierako festa. *Fiesta de fin de curso de la Ludoteca.*

22:30ean Aita Mari aretoan, Audience kontzertuan. *Concierto de Audience en la sala Alta Mari.*

Igandea, 12 Domingo

12:00etan Beheko plazako Gizarte zentroan 89 urte betetzen dituzten pertsonen omenaldia. *Homenaje a los que cumplen 89 años en centro social de la Beheko Plaza.*

Ekainaren 13tik 17ra Musika Eskolako ikasle eta irakasleen entzunaldiak/ *Audiciones de los estudiantes y profesores de la Musika Eskola.*

Larunbata, 18 Sábado

19:00etan komentuan, Beheko Plaza eta San Pedro Abesbatzen kontzertua *Concierto de los coros Beheko Plaza y San Pedro.*

Asteartea, 21 Martes

19:00etan Musika Eskolaren ikasturte amaierako jaialdia Maria eta Josen *Festival de fin de curso de la Musika Eskola.*

Asteazkena, 22 Miércoles

19:30ean Musika Eskolako ikasleen rock kontzertua Kofradian.

Concierto de Rock de los alumnos de la Musika Eskola.

21:45ean zine forum *Exit through the gift shop. Cine Forum 'Exit through gift shop'.*

Osteguna, 23 Jueves

22:00etan Sanjuaniturrin, San Juan suak Zumaiaiko Txistulari Bandarekin eta Musika Eskolako euskal dantzarekin.

Hoguera de San Juan en Sanjuanituri.

Ostirala, 24 Viernes

18:30ean, Capoeira Topaketak. *Encuentros de Capoeira.*

22:30ean Itzurun hondartzan 'Brasil Rua Live' erakustaldia. *En la playa de Itzurun 'Brasil Rua Live'.*

Larunbata, 25 Sábado

'Artadira igoera' txirindulari proba, 11:00etan 16 urte baino gazteagoak. 11:30ean 16tik gorakoak. *Prueba ciclista 'Subida a Artadi'.*

Igandea, 26 Domingo

Egun osoan zehar, artisau eta elikadura azoka: elikagaiak, artisauak lanean eta haurrentzat tailerrak. *Durante todo el día feria de artesanía y alimentación.*

SAN PEDRO JAIK asteartea-asteazkena, 28-29 Martes y miércoles

Osteguna, 30 Jueves

Egun osoan, Eusebio Gurrutxaga plazan, haur parke erraldoia. *Durante todo el día habrá el Gran Parque Infantil en la plaza Eusebio Gurrutxaga.*

Uztaila / julio

Larunbata, 2 Sábado

19:00etan kale antzerkia: Alicia A las 19:00 teatro de calle: Alicia

22:30ean kiroldegian Boxeo Gaua. *En el polideportivo, noche de boxeo.*

Igandea, 3 Domingo

12:00etan Gernika parkean Arditxakurrak. *En el parque Gernika perros pastores.*

Ostiraletik igandera 8-9-10, de Viernes a Domingo

Narrondoko jaiak / *Fiestas de Narrondo*

Igandea, 10 Domingo

10:00etan Flysch Trail. *A las 10:00 Flysch Trail.*

Ostirala, 15 Viernes

20:00etan parrokiari, Organo Kontzertua: Letizia Romiti

Concierto de órgano de la mano de Letizia Romiti.

Larunbata, 16 Sábado

22:30ean Musika bandaren Udako kontzertua Eusebio Gurrutxaga plazan.

Concierto de verano de la banda de música.

Igandea, 17 Domingo

20:30ean Itzurunen Eneko Larrañagaren Cora doinuak.

Sonidos de Cora en Itzurun de la mano de Eneko Larrañaga.

Larunbata, 23 Sábado

SURF FESTA Itzurunen *Festival de Surf en Itzurun.*

Astelehena, 25 Lunes

Bidasoako Folklore jaialdia Eusebio Gurrutxaga plazan.

Festival de Folclore de Bidasoa en la plaza Eusebio Gurrutxaga.

Osteguna, 28 Jueves

TEINK Trofeoaren 2011eko edizioako txalupen iristea.

Llegada de las barcas del trofeo Teink del 2011.

Ostirala, 29 Viernes

Dantza kalean: Dantza ikuskizunak herrian zehar.

Danza en las calles.

Larunbata, 30 Sábado

20:00etan Mariatxien kalejira 22:30ean Eusebio Gurrutxaga plazan, Mariatxi kontzertua.

A las 20:00 pasacalle de Mariachis, y a las

22:30 concierto en la plaza Eusebio Gurrutxaga.

